

ERANSKINA

A TALDEKO GESTIOKO TEKNIKARIA (MEDIKUA)" LAN-POLTSA GAIAK

- 1.- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea. Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzekoa. Uztailaren 27ko 306/99 Dekretua, EAeko prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduerak arautzen dituen.
- 2.- Lan-arriskuen prebentzioarekin lotutako nazio barruko eta nazioarteko erakundeak. LANE, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentzia, LSHIN. OSALAN.
- 3.- Laneko eta gizarte-segurantzako ikuskatzailatza laneko segurtasun eta osasunaren arloan. Lan-istripu eta gaixotasun profesionaletarako mutuak. MUFACE. Eskola-asegurua.
- 4.- Langileen informazioa eta prestakuntza. Enpresako komunikazioa.
- 5.- Datu medikoen konfidentzialtasuna. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legea.
- 6.- Lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak.
- 7.- Ezintasun iragankorra. Ezintasun iraunkorra. Prebentzio-zerbitzuetako jarduera.
- 8.- Osasunerako arrisku-faktoreak unibertsitate-inguruneko ingurumen fisikoan.
- 9.- Erradiazio ionizatzaileen eraginpean egotearen arriskua. Arriskupean dauden langileen osasuna zaindu eta prebenitzea.
- 10.- Erradiazio ez ionizatzaileen eraginpean egotearen arriskua. Arriskupean dauden langileen osasuna zaindu eta prebenitzea.
- 11.- Segurtasuna irakaskuntzan eta ikerketan. Arriskuaren estimazioa, planifikatutako ikuskapenak eta prebentziozko ikuskapenak. Gorabeheren eta istripuen gestioa. Horiek ikertzeko metodologia.
- 12.- Higiene industrialak gaixotasun profesionalen prebentzio-teknika gisa. Alderdi metodologikoak. Arrisku higienikoa baloratzeko irizpideak.

Laginketako eta analisirako metodoak. Horien aplikazioa unibertsitate-arloan.

13.- Eragile biologikoen eraginpean egotea. Arriskupean dauden langileen osasuna zaindu eta prebenitzea.

14.- Eragile kimikoen eraginpean egotea. Arriskupean dauden langileen osasuna zaindu eta prebenitzea. Toxikologia: eraginpean egotearen eta osasunean dituen eraginaren monitorizazio biologikoa. Muga balio biologikoak. Arrisku-eragile nagusiak. Arriskuen azterketa eta prebentzio-jarduera.

15.- Eragile genotoxikoen eraginpean egotea. Kantzerigenoen arriskupean dauden langileen osasuna zaintzea. Teratogeno profesional nagusiak. Teratogenoen eraginpeko kasuetan osasuna zaintzea.

16.- Ergonomia: helburuak eta funtzioak. Ergonomiaren aplikazioa unibertsitatean. Lanpostuen diseinua.

17.- Irakasleen karga fisikoa. Horrekin lotura duten muskuluen eta eskeletoaren arazoak. Prebentzioa eta detekzio goiztiarra.

18.- Datuak ikusteko pantailekin lan egitearekin lotutako arriskuak. Arriskupean dauden langileen osasuna zaindu eta prebenitzea.

19.- Arrisku psikosozialaren faktoreak irakasle eta irakasleengan eta AZParengan. Horiek ebaluatzeko tresnak. Indarkeria lanpostuan. Laneko estresa.

20.- Laneko baldintzen azterketa: unibertsitatean aplikatzea. Identifikazioa, ebaluazioa, prebentzio-jarduera eta jarraipena. Bereziki sentikorrek diren langileei eta amatasunaren babesari buruzko oharrak.

21.- Osasuna zaintzea: irakasle eta ikertzaileei eta AZPari dagozkien alderdi espezifikoak. Protokolizazioa. Lanposturako gaitasuna.

22.- Laneko medikuntzari loturiko espezialitateak: lanari loturiko neumologia, oftalmologia, otorrinolaringologia, traumatologia eta errehabilitazioa, dermatologia eta kardiologia.

23- Toxikomaniak.

24.- Osasun-hondakinen eta hondakin toxiko eta arriskutsuen gestioa. Euskal Autonomia Erkidegoko legedia.

25.- Estatistika eta epidemiologia laneko osasunean.

26.-Unibertsitatean lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistemak. Prebentzioa kudeaketan txertatzea. Erantzukizunak esleitzea. Langileek lan-arriskuen prebentzian parte hartzea. Ordezkaritza- eta partaidetza-organoak.

27.- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Gizonen eta Emakumeen berdintasunerakoa. Arauaren objektua eta xedea. Oinarri orokorrak. Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak.